

**Plan Director de
Banda Ancha:
Navarra 2021**

**Resumen Ejecutivo
Lanerako Laburpena**

**Banda Zabalerako
Plan Zuzentzailea:
Nafarroa 2021**

AURKIBIDEA

1 ZERGATIK ORAIN BANDA ZABALEKO PLAN ZUZENTZAILE BAT?	3
2 PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK	8
3 PRINTZIPIO ESTRATEGIKOAK	11
4 PLANAREN BERARIAZKO HELBURUAK	14
5 ADIERAZLEAK	16
6 JARDUKETA AGERTOKIAK IDENTIFIKATZEA	19
7 JARDUKETEN LABURPEN KOADROA	29
8 INBERTSIOEN LABURPEN KOADROA	32
9 NOLA EGIN DUGU PLAN HAU?	33

2021 Nafarroa: Banda Zabalaren Plan Zuzentzailea. Sustatzailea:



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Lehendakaritza, Funtzio Publikoa,
Barnea eta Justizia
Presidencia, Función Pública, Interior
y Justicia

Laguntzailea:



Informatikaren, Telekomunikazioen eta
Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Informática,
Telecomunicaciones e Innovación Pública

1 | ZERGATIK ORAIN BANDA ZABALEKO PLAN ZUZENTZAILE BAT?




Gaur egun, banda zabaleko telekomunikazio-sare eta -zerbitzu berrietan sarbidea izatea ezinbestekoa da lurralde bateko herritarren **garapen sozial eta ekonomikorako**, baita haren **enpresa-sarerako** eta **administrazio publikoetarako** ere. Beraz, telekomunikazio azpiegiturak baitezpadakotzat jo behar ditugu herritarrak eta enpresak Informazioaren eta Komunikazioaren Gizartean, **Konektatutako Gizartean** sar daitezen.


Azpiegitura horiek eskura izanez gero, herritarrei eta enpresei errazagoa izanen zaie telekomunikazio-teknologia eta -zerbitzu berri eta aurreratuan sartzea, gure enpresa-sarearen lehiakortasuna mantendu eta hobetuko da eta, orobat, interes orokorreko zerbitzu asko eskaintzeko euskarri moduan erabiliko da, hala nola informazioa eskuratzeko, hezkuntzarako, osasunerako, segurtasunerako, larrialdi zerbitzuen koordinaziorako eta administrazio publikoen eta herritarren arteko komunikaziorako. Gainera, esan daiteke Administrazio Elektronikoaren garapen eta ezarpenean funtsezkoa dela. Horrenbestez, banda zabalaren bidez Internetera konektatzeak onura asko dakartzkie **herritarrei eta enpresei**.

Baina ezin dugu ahaztu hori guztia izateko azpiegitura horiek lurralde osoan behar ditugula eta **aukera berberak** eman behar zaizkiola edozein herritar edo enpresari, **geografikoki non dagoen kontuan izan gabe** eta, are gehiago, herrietan bizi direnei, maiz merkatuak ez baitu haien eskura uzten zerbitzu hori, kalitate askirekin eta kostu jasangarriz.

Banda zabala edo banda zabaleko zerbitzuak, oro har abiadura handiko komunikazio elektronikorako zerbitzu gisa definitzen dira. Nabigatzeko abiaduraren arabera, esanen dugu **oinarrizko banda zabala** (> 2 Mbps), **banda zabal lasterra** (>30 Mbps) eta **banda zabal ultralastera** (100 Mbps-tik gora) direla.




Oinarrizko banda zabaleko sareak oinarritzen dira lehendik diren sare finko edo hari-rik gabekoetan. Aldiz, banda zabal laster edo ultralastera (NGA) azpiegitura berriak dira, eta horien bidez >30 Mbps eta zerbitzu berriak erdiesten ahal dira.



1. irudia. Gaur egungo estaldura, 30 Mbps-tik (VDSLrik gabe) gorako sare finkoak dituzten Nafarroako udalerrien arabera. Estaldura handieneko eremuak Iruñerria, Tuter eta Ebroko ardatza dira.

Banda zabala zabalduko bada, sektore pribatuaren inbertsio esanguratsua eta sektore publikoaren laguntza behar ditu. Gainera, nahitaezkoa da epe luzeko ikuspegia izatea, izan ere, banda zabalaren onurak ez dira goizetik gauera etorriko.



Testuinguru honetan, **Europako Agenda Digitalean** (Europa 2020 estrategiaren zazpi ekimen enblematikoetako bat) banda zabala zabaltzea sartu zen, gizarteratzea eta lehiakortasuna sustatzeko. Hasiera batean, 2013rako europar guztiek oinarrizko banda zabala izateko helburua ezarri zen. Helburu hori jada bete da Nafarroan. Ondoko helburua da bermatzea, 2020rako, europar guztiek izanen dutela Interneten nabigatzeko abiadura handia (30 Mbpstik gorakoa) eta Europako etxebizitzaren %50 edo gehiago egonen direla 100 Mbps-tik gorako Interneteko konexio ultralasterretara harpidetuta.

Nafarroan jada hasi da Interneteko belaunaldi berriko konexioak zabaltzeko lasterketa, bereziki etxebizitzetarako zuntz optikoari dagokionez (FTTH, ingelesezko, fiber to the home). Hala ere, konexio lasterrak (>30 Mbps) eta ultralasterrak (>100 Mbps) instalatzea oso garestia da, bereziki landa eremuetan eta industriaguneetan eta, beraz, estaldura unibertsala erdieste, gaur gaurkoz, sektore pribatuko eragile nagusien gaitasunetik harago dago. Horrek esan nahi du **eskualde eta toki mailako jarduketa koordinaturik ez badago, Nafarroako hainbat eremu abiadura handiko banda zabalik gabe geldituko direla ondoko urteetan.**


Foru Gobernuaren eta toki administrazioen parte-hartzea izanen duen Banda Zabaleko Plan Zuzentzaile bat garatu eta inplementatzeko, nahitaezkoa da aintzat hartzea belaunaldi berriko konexio sareak zabaltzeko Estatu mailan dauden laguntzen araudia. Araudi horretan adierazten da **NGA eremu zuriak izanen direla belaunaldi berriko banda zabaleko sareen estaldurarik ez dutenak eta ondoko hiru urteetan, sinesgarriak diren inbertsio planen arabera, aurreikuspenik ez dutenak operadoreen batek hornituak izateko.** Eremu zuri hauek dira, printzipioz, administrazioek esku hartzeko modukoak diren eremuak, estatu mailako laguntzen bidez.

Eremu zuriak zein diren zehazteko, Informazioaren Gizarterako eta Agenda Digitalerako Estatu Idazkaritzak urtero biltzen du informazio xehakaturia Espainian dauden operadoreek eskainitako banda zabaleko estalduraren gainean. Informazio horretatik eta 3 urtera begira operadoreek berek egindako aurreikuspenetatik abiatuta, NGA eremu zuri gisa hartuak izateko baldintzak betetzen ez dituzten biztanleria entitate singularren zerrenda egiten du. Horietan, beraz, ez dira aplikagarriak urte horretan emateko pentsatuak dauden laguntzak.

Nafarroako eremu ez-zuriko udalerrriak jada NGA konexio sareen estaldura duten eremuetakoak dira: Iruñeko barruti metropolitarra eta Ebroko ardatzeko Erriberako udalerrriak. Halaber, badira Sakanan zenbait udalerrri, eta baita besteren bat ere, kasurako, Zangoza, gaur gaurkoz NGA konexiorik izan ez arren operadoreen baten epe laburreko zabalpen planetan jada sartuak daudenak.

Nafarroan identifikaturik dauden 948 biztanleria entitate singularretatik, 883 (%93,14) eremu zurietan daude, nahiz eta "soilik" hartzen duten biztanleriaren %26. Honek frogatzen du aipaturiko eten digitala: **udalerrien %84 eta Nafarroako biztanleria entitate singularren %93 belaunaldi berriko banda zabaleko sareen estaldurarik gabe daude.**

Eremu zuriko 883 biztanleria entitate singularretan soilik zentratzen bagara, ondoko sailkapena egin daiteke, biztanleriari eta geografiari erreparatzen badiogu. Sailkapen honek



aukera emanen digu bestelako agertokiak garatzeko, lurraldean banda zabal laster eta ultralasterra heda daitezzen laguntzeko esku hartze neurri eta mailak proposatzeko xedez.


Banda zabala hedatzeko Nafarroako biztanleriaren geotipoak	
3.000 biztanletik gorako herriak	Nafarroako biztanleria guztiaren %7,81 (50.050 biztanle) hartzen duten 9 herri dira. Horietan operadoreek interesa eta ekimena adierazten dute, banda zabaleko konexio sarean hedatzeari dagokionez.
1.000 eta 3.000 biztanle arteko herriak	Nafarroako biztanleria guztiaren %5,92 (37.934 biztanle) hartzen duten 22 herri dira. Udalek telekomunikazio operadoreek baino interes handiagoa dute banda zabaleko konexio sareak hedatzeko orduan. Operadoreak abian jarriko dira baldin eta hein bateko laguntza publikoak badaude.
200 eta 1.000 biztanle arteko herriak	Nafarroako biztanleria guztiaren %5,78 (37.058 biztanle) hartzen duten 90 herri dira. Herri hauetan oso zaila da operadore pribatuek interesa izatea NGA konexio sareak hedatzeko, ez bada administrazio publikoek irmoki esku hartzen dutela.
200 biztanletik beherako herriak	Nafarroako biztanleria guztiaren %5,78 (37.060 biztanle) hartzen duten 762 herri dira. 200 biztanletik beherako herriak. Herri hauetan operadore pribatuek ez dute interesik NGA hedatzeko, ez bada laguntza publikoen munta garrantzitsu batez gain eskaria biltzeko neurriak hartzen direla.


1. taula. Biztanleria geotipoak.

Aipatzekoa da herrigune txikietan biztanleria kontzentrazio handiak izateak zailtasuna dakarrela zerbitzuen estaldurari begira Nafarroan edo Aragoian, kasurako, Euskadiko Autonomia Erkidegoarekin edo Andaluziarekin erkatzen baditugu, horietan herri txikietan bizi den biztanle kopurua askoz txikiagoa baita.

Nafarroan, 3.000 biztanletik beherako eremu zuri eta ez-zurietan bizi den biztanleria kopurua %25,3koa da, itxuraz bestela badirudi ere, Aragoiko %22,8tik gora eta EAeko %13,2tik edo Andaluziako %11,9tik aski urrun.

Gainera, herri horiek oso barreiatuak daude lurraldean barrena. Horrek agerian uzten du belaunaldi berriko banda zabala herritar guztien eskura jartzea arazo konplexua dela, beste erkidego batzuek egin behar duten ahaleginarekin erkatzen badugu.






2. irudia. Nafarroako biztanleria geotipoen arabera.

Datuekin jarraikiz, banda ultralasterreko konexioen sartzeko maila 100 biztanleko 28,5 lineakoa da. Kopuru hori 2014ko estatu mailako batezbestekoa baino handixeagoa da, autonomia erkidegoen artean 7. postua izanik.

Nafarroako enpresek Internet bidez duten konexioaren abiadurari dagokionez, arduraz hartzekoa da **Nafarroa zertxobait beherago dagoela, estatu mailako ehunekoekin erkatzen badugu, abiadura handieneko konexioei (>100 Mbps) dagokienez, sektore guztietan**. Diagnostiko honi jarraikiz, industriaguneen %40 bizi dugun ekonomia global digitalizatu honetan enpresen lehiakortasuna bermatzeko aski ez den banda zabaleko eremuetan kokatzen da.




Beste autonomia erkidego batzuk, kasurako, Asturias, Andaluzia, Galizia, Aragoi etab., urteetan ari dira beren premietara egokituriko banda zabaleko planekin lanean. Beste batzuek lortu badute, zergatik Nafarroak ez?

Nafarroako Gobernuaren ikuspegia da estalduraren %100 erdieste ahal bezain laster: inor ez dadila atzean gelditu. Horretarako, Nafarroako Gobernuaren ikuspegia da sektore publikoa, pribatua eta erkidegoak berak elkargune batean biltzea, tokiko mailan, belaunaldi berrietako konexioak bultzatzeko. Elkarrekin lan egiten badugu, ezagutza eta esperientzia trukatzuz, inbertsioa bultzatu, berrikuntza sustatu eta banda zabaleko belaunaldi berriko sareak hedatu ahal izanen ditugu Nafarroan.


2 | PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

Nafarroako Banda Zabalen Plan Zuzentzailearen helburu nagusia da banda zabaleko azpiegituren garapena bultzatzea belaunaldi berriko Interneteko konexio sareen ezarpena bermatzeko, lurralde desorekak murriztuz eta Nafarroako garapen sozioekonomikoa bultzatuz.

Banda zabala oinarrizko azpiegitura izaki, argi dago Nafarroan eten digitala murriztera bideraturiko zeinahi ekintzak koherentea izan behar duela eta lerroan joan behar duela aurrez diseinaturiko estrategia guztiekin, besteak beste, Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin eta Nafarroako Lurralde Estrategiarekin. Bereziki, garrantzitsua da Banda Zabaleko Plan Zuzentzaile honetan aintzat hartzea Nafarroako Lurralde Estrategiako azpialorretako sailkapen eta lehenetsunak, lurraldearen kohesio sozioekonomikoa eta lehiakortasun orekatuagoa erdieste aldera.





Nafarroako Lurralde Estrategiako katalogazioa eta lehenespena (2015)



Planean ahaleginduko da banda zabaleko sare berriak **Nafarroa osora** hedatzen eta, horrenbestez, teknologia berrien onurak herritarren, administrazioaren eta enpresa-sarearen esku jartzen. Hori lortu nahi da lau helburu estrategiko hauek betez:

- **Lurraldea egituratzea eta eten digitala murriztea.** Lurraldea egituratzea Nafarroan banda zabaleko telekomunikazio zerbitzu eta azpiegituren hedapena kapilarizatuz, kokapen geografikoa zeinahi delarik ere, antzeko kalitatearekin. Hauxe da Banda Zabaleko Plan Zuzentzaile hau gidatu behar duen helburu nagusi eta gidalerroa, horren bidez, gaur egun dagoen eten digitala murrizten lagunduz eta etorkizunean eten hori saihesteko oinarriak ezarriz.
- **Europako Agenda Digitala** betetzea: Agendak ezartzen du 2020rako europar guztiek banda zabaleko sareen estaldura izan behar dutela (>30 Mbps) eta etxebizitzien erdiak 100 Mbps-tik gorako konexioetara harpidetuta egon behar dutela.
- Toki administrazioetako eta **Nafarroako Gobernuko egoitzetako** konektibitatea hobetzea. Telekomunikazio zerbitzuen konektibitatea hobetzeak eta Gobernuaren egoitzetan IKTen erabilera sustatzeak, aukera emanen dute hein handi batean hobetzeko herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu publikoak eta, aldi berean, handitzeko administrazioaren kudeaketan eraginkortasuna.
- **Jarduera ekonomikoko eremuen** konektibitatea hobetzea. Jarduera ekonomikoko eremuetan, banda zabaleko sare eta zerbitzuak eusteko gai diren telekomunikazio azpiegiturak izateak tokiko ekoizpen sarearen garapena bultzatzen du eta, hala, enpresa berrikuntza errazten du, eta enpresen lehiakortasuna sustatzen.






LURRALDEA EGITURATZEA	EUROPAKO AGENTZIA DIGITALA 2020RAKO BETETZE MAILA	ADMINISTRAZIOKO ZERBITZUAK HOBETZEA	GARAPEN EKONOMIKOA
Lurralde desorekak murriztea banda zabaleko telekomunikazio zerbitzuen konexioan, belaunaldi berriko sareen ezarpena errazteko behar diren oinarrizko azpiegituren hedapena sustatuz.	Nafarroan banda zabaleko konexio sareen hedapena sustatzea, Europako Agentzia Digitalaren 2020rako helburuak betetzeko.	Administrazioan kostuak murriztea eta herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzea, Gobernu egoitzetan IKTen erabilera sustatuz eta telekomunikazio zerbitzuen konektibitatea hobetuz.	Enpresa sarearen garapen ekonomikoa laguntzea, banda zabaleko sareen eskuragarritasuna sustatuz jarduera ekonomikoko guneetan, zentro teknologikoetan eta ikerketa zentroetan.

Helburu estrategiko bakoitzerako **berariazko helburu** batzuk definitu dira, 2017an eta 2021 bitartean erdiestekoak. Helburu horiek planeko neurri eta lan ildoetan kokatzen diren **programa eragileen** baten bidez artikulatzen dira. Horrela, ekintza plana 8 programa eragiletan kokaturiko 18 neurriren bidez zehazten da.

Azkenik, jarduera ardatz bakoitzerako, **adierazle** batzuk definitzen dira. Adierazle horiek ahalbidetuko dute **programa eta neurrien garapena, eta planteaturiko berariazko helburuetan duten eragina ebaluatzea.**



BANDA ZABALEKO PLAN
ZUZENTZAILEAREN HELBURUAK

Helburu estrategikoak

EKINTZA PLANAREN
ANTOLAKETA

Jarduketa ardatzak

Programa operatiboak

Jarduketa ildoak

1. neurria

2. neurria


Helburu zehatzak

3 | PRINTZIO ESTRATEGIKOAK


Nafarroan belaunaldi berriko banda zabalaren hedapena bultzatzeko estrategia propio bat dago, ondo-oihalean Europako Agenda Digitala bete beharra dagoela. Xedea da lurraldea egituratzeko beharrezkoak diren azpiegitura hauen garapena planifikatzekoa, Nafarroako garapen sozioekonomikoa bultzatuz eta telekomunikazio zerbitzuen konexioan diren lurralde desoreka garrantzitsuak murriztuz.

Esparru horretan, tokiko eta eskualdeko administrazio publikoek berebiziko papera dute belaunaldi berriko sareak hedatzeko orduan, bai landa eremuetan, bai hiri eremuetan. Paper hori betetzeko Banda Zabalaren Plan Zuzentzailearen gidalerro diren printzipio estrategikoak erabili behar dira. Horiek planaren definizioan kontuan izateaz gain, planaren ondoriozko jarduketetan ere aintzat hartu beharko dira, bai egin behar diren inbertsioen planifikazioan eta lehenespenean ere.


- **Administrazio publikoak, planaren motorra.** Administrazio publikoa gidatu behar du banda zabaleko estrategia, ikuspegi estrategikoa ekarriz, mozkin ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa orekatzeko. Gainera, hori ahalik eta babes politiko eta instituzional handienarekin egin behar da, gauzatu beharreko ekintzak legitimatuz eta zerikusia duten eragile guztien konpromisoa jasoz, ahaztu gabe Administrazioaren funtsezko rola, planaren garapenak ekarriko duen aurrekontuaren kudeatzaile den aldetik. Gainera, administrazio publikoak giro erregulatzailer egonkor eta aurreikusgarri bat sortu behar du, belaunaldi berriko sareak hedatzeko orduan egin behar den inbertsio handiari ekiteko inbertsore pribatuek behar duten segurtasun juridikoa emateko.



- **Lankidetzaren publiko-pribatuaren potentziala aztertzea.** Administrazio publikoak [Informazioaren Gizarterako eta Agenda Digitalerako Estatu Idazkaritzak, Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek] aztertu behar ditu lankidetzaren publiko-pribatuaren oinarrituriko estrategiak, planaren xedeak betetzen laguntzen dutenak, inbertsioak eta arriskuak sektore pribatuarekin konpartituz. Lankidetzaren publiko-pribatuko formula hauek aukera ematen dute unean uneko esku-hartze publikoaren maila modulatzeko. Horrek, eragina du eskura dauden baliabide ekonomikoen aprobetxamenduan.
- **Azpiegitura inbertsioak lehenestea.** Banda zabaleko telekomunikazio sare batek behar ditu azpiegitura pasiboa (kanalizazioak, hodiak, mastak, etxolak, kableak etab.) eta azpiegitura aktiboa (sareko elektronikak, zuntz optikoko goiburuko ekipoak, konexio ekipoak, etab.). Telekomunikazio azpiegitura pasiboak aktibo iraunkorra dira. Behin hedatu direla, hamarkadak iraun ditzakeen bitzita ekonomikoa dute. Aldiz, ekipo aktiboek zaharkitze azkarra dute, elektronika bera zahartzen delako eta gaur egun aldaketak abiadura bizian ematen direlako. Gainera, eskuragarritasun eta/edo azpiegitura pasiboaren kostu hori da, hain zuzen ere, gaur egun belaunaldi berriko telekomunikazio sareen hedapenak duen abiaburuko oztopo nagusia.
- **Jada badiren azpiegiturak baliatzea.** Nahitaezkoa da jada badiren azpiegiturak berrerabiltzera bideraturiko neurriak sustatzea, horien barnean, baina interes publikoko beste zerbitzu batzuk ere (ura, argindarra, gasa, kaleko argiak etab.). Bestetik, obra zibil berriak egiteko orduan kostuak murrizten edo oztopoak gainditzen badira, oinarrituriko beste azpiegitura batzuen hedapenarekin sinergiak lortuz, modu esanguratsuan lagundu daiteke banda zabaleko sareak azkarrago eta zabalago hedatzen eta hedapena eraginkorrago bihurtzen.
- **Azpiegitura eskalagarrietako inbertsioak lehenestea.** Lurraldea egituratu eta berriz ere etorkizunean eten digitaleko egoeretan erortzea saihesteko, komenigarriagoa da banda zabal eskalagarriko azpiegiturretan inbertitzea, etorkizunean gaitasun handiagoa eskatzen bada, hari erantzuteko. Banda zabaleko eskaerak areagotuz joanen dira eta, beraz, funtsezkoa da aise eskalatzeko moduko gaitasuna duten azpiegiturak lehenestea, horrela, denbora laburrean zaharkituak geldituko direnak saihestuz. Testuinguru honetan, funtsezkoa da zuntz optikoaren presentziaren alde egitea, euskarri azpiegitura den aldetik, ez soilik garraio sare nagusian, baita ere banaketa sareetan, telekomunikazio aurreratuko zerbitzuak ahalbidetuz ondoko 20 edo 30 urteetan. Etorkizuneko ikuspegi finkoa aplikatzearen eta gaurko muga ekonomikoen testuingurura egokitzearen artean oreka egokia aurkitzea izanen da Nafarroako Banda Zabaleko Plan Zuzentzaile honen benetako erronka.
- **Banda zabal ultralasterraren hedapenak lehenestea.** Lurralde desoreka larriari epe laburrean erantzuna eman diezaioketen konponbideak aplikatzeari kalterik egin gabe, gaur egun diren banda zabaleko sareen konexioan apustu irmoa egin behar da 100 Mbps-tik gorako konektibitatea eskaintzeko gai diren banda zabaleko azpiegiturak lehenesteko.




- **Sare irekiendako Europako zuzentaraua errespetatzea.** Europako Batzordeak markaturiko jarraibideen arabera, funts publikoz lagunduriko azpiegituren eraikuntza eraginkortasun eta neutraltasun teknologikoko printzipioen arabera gidatu behar da, guztiaren gainetik interes publikoa sarituz eta sare irekien azpiegiturak lehenetsiz, operadoreei aukera emanez horiek berdintasunez eta diskriminaziorik gabe baliatzeko azken erabiltzaileei zerbitzuak emateko orduan.




4 | PLANAREN BERARIAZKO HELBURUAK


Jarraian Banda Zabaleko Plan Zuzentzailearen berariazko helburuak aurkezten ditugu. Gaur eguneko diagnostikoaren, diren premien eta etorkizuneko erronken arabera formulatu dira.


ARDATZ ESTRATEGIKOA	HELBURU ESTRATEGIKOA	BERARIAZKO HELBURUA	ID
 <p>Lurraldea egituratzea</p>	<p>Lurraldea egituratzea eta eten digitala murriztea</p>	<p>Nafarroako Lurralde Estrategiako azpialor bakoitzean egituratze maila handiena duen biztanleria entitateak (banaketa sare (<i>backhaul</i>) baterako) konexio puntu bat izanen du NGA>100 Mbps sareko konexioetarako egokia eta operadore guztiei irekia</p>	1
		<p>Nafarroako Lurralde Estrategian definituriko azpialor bakoitzeko biztanleriaren %20ak banda zabal ultralasterreko estaldura izanen du. Horrekin, bultzada bat emanen zaio Nafarroan zuntz optikoaren azterna zabaltzeari.</p>	2
		<p>Jarduera ekonomikoko gune guztiek (banaketa sare (<i>backhaul</i>) baterako) konexio puntu bat izanen dute NGA>100 Mbps sareko konexioetarako egokia eta operadore guztiei irekia.</p>	3


14


 <p>Herritarrak</p>	<p>2020 Europako Agenda Digitalaren betetze maila_1 Biztanleriaren* %85ek >100 Mbps konexio sareen estaldura izanen du</p>	<p>1.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan bizi direnen %100ak banda zabal ultralasterreko (>100 Mbps) konexio sareen estaldura izan dezala lortzea</p>	4
		<p>1.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan bizi direnen %30ak banda zabal ultralasterreko (>100 Mbps) konexio sareen estaldura izan dezala lortzea</p>	5
	<p>2020 Europako Agenda Digitalaren betetze maila_2 %100 30 Mbps-ko estaldurarekin</p>	<p>1.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan bizi direnen %30ak banda zabal ultralasterreko (>30 Mbps) konexio sareen estaldura izan dezala lortzea</p>	6

■ Biztanleriaren %85 > 100Mbps sare estaldurarekin, 2020 Europako Agenda Digitaleko > 100Mbps konexioen %50eko betetze mailaren aurreko urrats gisa.



ARDATZ ESTRATEGIKOA	HELBURU ESTRATEGIKOA	BERARIAZKO HELBURUA	ID
 <p>Gobernuaren egoitzak</p>	<p>Nafarroako Gobernuaren egoitzen konektibitatea hobetzea</p>	Nafarroako Gobernuarendako interes estrategikoa duten gobernu bereko egoitzen %100ean NGko sarerako zuntz optiko bidezko konexioa izanen dute.	7
		Nafarroako Gobernuaren egoitzen %100ak gutxienez ere 30 Mbps-ko konektibitatea izanen du.	8
		Sare publikoko ikastetxeen %100ak gutxienez ere 100 Mbps simetrikoko konektibitatea izanen du.	9
		Sare publikoko Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeen %100ak gutxienez ere 300 Mbps-ko konektibitatea izanen du.	10
		Oinarritzko osasun laguntzako sare publikoko etengabeko atentzioko zentro, oinarritzko eskualde buruko osasun etxe eta kontsultategi nagusi guztiek gutxienez ere 100 Mbps simetrikoko konektibitatea izanen dute.	11

 <p>Enpresa sarea</p>	<p>Jarduera ekonomikoko guneetan (industrialdeak eta enpresa parkeak) konektibitatea hobetzea</p>	Jarduera ekonomikoko guneetan (industrialdeak eta teknologia parkeak) kokaturiko enpresen %100ak banda zabal lasterrerrako konexioa izanen du (>30 Mbps).	12
		Jarduera ekonomikoko guneetan (industrialdeak eta teknologia parkeak) kokaturiko enpresen %80ak banda zabal ultralasterrerrako konexioa izanen du (>100 Mbps).	13
		Zentro teknologikoetako %100ak banda zabal ultralasterreko konexioa izanen du (>100 Mbps).	14



5 | ADIERAZLEAK

	ADIERAZLE NAGUSIAK	ABIAPUNTUA	HELBURUA
01	Interes estrategikoko NGko egoitzetan zuntz optiko propioa duten egoitzen %	33,33%	100 %
02	Banda zabal lasterreko (> 30 Mbps) konektibitatea duten NGko egoitzen %	33,98%	100%
03	Gutxienez ere 100 Mbps simetrikoko konektibitatea duten sare publikoko ikastetxeen %.	*28,00 %	100%
04	Gutxienez ere 300 Mbps simetrikoko konektibitatea duten sare publikoko Bigarren Hezkuntzako eta LHko ikastetxeen %.	35,90%	100%
05	Gutxienez ere 300 Mbps simetrikoko konektibitatea duten sare publikoko Bigarren Hezkuntzako eta LHko ikastetxeen %.	*40,32 %	100%


Iturria: NASERTIC

* Operadorearekin kontrataturiko FTTH lineei dagokien atalean ez dira 100 Mbps simetriko, baizik asimetriko. Migratu daiteke 100 Mbps simetrikora, operadoreari tipologia eta tarifa aldaketa eskatuz. Ikus adierazle osagarriak

16

	NGREN EGOITZETAKO ADIERAZLE OSAGARRIAK	ABIAPUNTUA
06	Sare korporatibora konexioa autoprestazio araubidean duten NGko egoitzen %	30,24 %
07	Sare korporatibo propiora zuntz optiko bidezko konexioa autoprestazio araubidean duten NGko egoitzen (Telekomunikazio zentroak barne) %	60,70%
08	Sare korporatibo propiora zuntz optiko bidezko konexioa autoprestazio araubidean duten NGko egoitzen (Telekomunikazio zentroak salbu) %	90,87%
09	Banda zabal lasterreko (> 30 Mbps) konektibitatea autoprestazio araubidean duten NGko egoitzen %	98,07%
10	Zerbitzua operadoreekin kontratatua eta banda zabal lasterreko (> 30 Mbps) konektibitatea duten NGko egoitzen %	5,79%

Iturria: NASERTIC



	> IKASTETXEETAKO ADIERAZLE OSAGARRIAK	> ABIAPUNTUA
11	Sare korporatibo propiora zuntz optiko bidezko konexioa autoprestazio araubidean duten ikastetxeen %	18,00%
12	Gutxienez ere 100 Mbps simetrikoko konektibitatea eta sare korporatibo propiora zuntz optiko bidezko konexioa duten ikastetxeen %.	100 %
13	Gutxienez ere 100 Mbps simetrikoko konektibitatea eta zerbitzua operadoreekin kontratatua duten ikastetxeen %.	* 12,32 %
14	Sare korporatibo propiora zuntz optiko bidezko konexioa autoprestazio araubidean duten ikastetxeen %	35,90%
15	Gutxienez ere 300 Mbps simetrikoko konektibitatea eta sare korporatibo propiora zuntz optiko bidezko konexioa duten sare publikoko Bigarren Hezkuntzako eta LHko ikastetxeen %.	100%
16	Gutxienez ere 300 Mbps simetrikoko konektibitatea eta Zerbitzua operadoreekin kontratatua duten sare publikoko Bigarren Hezkuntzako eta LHko ikastetxeen %.	0%

Iturria: NASERTIC


* FTTH operadorearekin kontraturiko FTTH lineak ez dira simetrikoak. Migratu daiteke 100 Mbps simetrikora, operadoreari tipologia eta tarifa aldaketa eskatuz.

17

	> OSASUN ETXEETAKO ADIERAZLE OSAGARRIAK	> ABIAPUNTUA
17	Sare korporatibo propiora zuntz optiko bidezko konexioa autoprestazio araubidean duten oinarrizko osasun laguntzako eskualde buru diren osasun etxeen %	35,48%
18	Gutxienez ere 100 Mbps simetrikoko konektibitatea eta sare korporatibo propiora zuntz optiko bidezko konexioa duten oinarrizko osasun laguntzako eskualde buru diren osasun etxeen %.	100 %
19	Gutxienez ere 100 Mbps simetrikoko konektibitatea eta zerbitzua operadoreekin kontratatua duten oinarrizko osasun laguntzako eskualde buru diren osasun etxeen %.	*6,82 %

Iturria: NASERTIC

* FTTH operadorearekin kontraturiko FTTH lineak ez dira simetrikoak. Migratu daiteke 100 Mbps simetrikora, operadoreari tipologia eta tarifa aldaketa eskatuz.



	ADIERAZLE NAGUSIAK	ABIAPUNTUA	HELBURUA
20	Banda zabal lasterreko (> 30 Mbps) estaldura duten industrialdeetako enpresen %	*66,05%	100%
21	Banda zabal ultralasterreko (> 100 Mbps) estaldura duten industrialdeetako enpresen %.	*54,43%	80 %
22	Banda zabal lasterreko (> 30 Mbps) estaldura duten teknologia zentrozen %.	*72 %	100 %
23	Banda zabal ultralasterreko (> 100 Mbps) estaldura duten teknologia zentrozen %.	*72 %	100 %

Iturria: NASUVINSA

* Operadoreen 4G eta/edo FTTH estaldura eta NASUVINSAk emandako datuetan oinarrituriko estimazioa.

	ADIERAZLE OSAGARRIAK	ABIAPUNTUA
24	Banda zabal lasterreko (> 30 Mbps) estaldura duten industrialdeen %	*25,33%
25	Banda zabal ultralasterreko (> 100 Mbps) estaldura duten industrialdeen %.	*12,44%


Iturria: NASUVINSA

* Operadoreen 4G eta/edo FTTH estaldura eta NASUVINSAk emandako datuetan oinarrituriko estimazioa.

	ADIERAZLEA	ABIAPUNTUA	HELBURUA
26	Banda zabal lasterreko (> 30 Mbps) estaldura duten biztanleen %	74 %	100 %
27	Banda zabal ultralasterreko (> 100 Mbps) estaldura duten biztanleen %	69%	85 %
28	Banda zabal ultralasterreko (> 100 Mbps) benetako konexioa duten biztanleen %	*14%	50 %
29	1.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan bizi direnen artean banda zabal ultralasterreko (>100 Mbps) konexio sareen estaldura dutenen %	78,68%	100 %
30	1.000 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan bizi direnen artean banda zabal ultralasterreko (>100 Mbps) konexio sareen estaldura dutenen %	3,43%	30 %

Iturria: SETSI. Nafarroako Estaldura 2016ko datu xehakatuaren txostena (2016ko maiatza).

* Estimazioa



	ADIERAZLE NAGUSIAK	ABIAPUNTUA	HELBURUA
31	Datuak garraiatzeko sare batera abiadura handiko handizkako konexio puntu bat (100 Mbps - 1Gbps) duten Nafarroako Lurralde Estrategiako azpialorren %	*23%	100 %
32	Banda zabal ultralasterreko (>100 Mbps) estaldura gutxienez ere biztanleen %20k duten Nafarroako Lurralde Estrategiako azpialorren %	18 %	100 %
33	Datuak garraiatzeko sare batera abiadura handiko handizkako konexio puntu bat (100 Mbps - 1Gbps) duten jarduera ekonomikoko guneen (industrialdeak eta teknologia parkeak) %	*53 %	100 %

* Estimazioa

	ADIERAZLE OSAGARRIAK	ABIAPUNTUA
34	Sare finkoetan banda zabal ultralasterreko (>100 Mbps) estaldura duten 3.000 biztanletik gorako herrien %	70,27%
35	Sare finkoetan banda zabal ultralasterreko (>100 Mbps) estaldura duten 1.000 biztanletik gorako herrien %	*50,63%
36	Sare finkoetan banda zabal ultralasterreko (>100 Mbps) estaldura duten 1.000 biztanletik beherako herrien %	0,23%
37	Sare finkoetan banda zabal lasterreko (>30 Mbps) estaldura duten 1.000 biztanletik beherako herrien %	*1,05%


Iturria: SETSI

* VDSL teknologia bikoitzeko estaldura dutenak barne

19

6 | JARDUKETA AGERTOKIAK IDENTIFIKATZEA


Administrazio publikoak, eskualdean belaunaldi berriko sareak hedatzeari dagokionez duen erronkarik handiena da hautatzea eta zedarritzea zein paper jokatu duen merkatuari dagokionez (ezin ahaztu daiteke telekomunikazioena sektore liberalizatua dela), zein izanen den esku-hartze publikoaren maila eta zer kopuru konprometituko diren xede horretarako. Aldi berean, hainbat bide ditu Administrazio publikoak eskualde bateko banda zabaleko garapenean parte hartzeko: araubide eta administrazio alderdiei ekin diezaieke, baina baita finantzazio publikoz hornitzeari edo banda zabaleko sareen eraikuntzan parte hartzeari ere.



Kasu bakoitzean administrazio publikoak hautaturiko esku-hartze mailaren arabera izanen dira balizko inbertsio ereduak eta administrazio publikoak horietako bakoitzean hartuko duen rola.

Eredu bat edo beste hautatzea erabaki politikoa izanen da. Egoera kultural eta sozioekonomikoaren eta epe ertain eta luzerako eskualderako dauden helburuen arabera izanen da.

Ez dago egoera bakoitzari egokituriko inbertsio eredu bakar bat. Hortik abiatuta, kontuan izan behar da eredu bakoitzak bere abantailak eta desabantailak dituela eta kasu bakoitzeko gune geografikoaren eta ingurunearen gorabehera eta baldintzen arabera eredu bat edo beste izanen dela egokiago.




Plan zuzentzaile hau prestatzeko, Europako Batzordeak abiadura handiko banda zabalean inbertitzeko argitaraturiko gidan oinarritu gara, xedea izanik “administrazio publikoari laguntzea inbertsiorako bere bidea aurkitzen, erabaki kritikoaren gaineko galderak eginez eta abiadura handiko banda zabalen erabateko estaldurara bidean urrats bakoitzak dituen inplikazioak azpimarratuz”. Gida honen arabera, banda zabaleko plan zuzentzaile irmo bat


laguntza politikoko dokumentu bat da, berarekin dakarrena uneko egoeraren azterketa bat, erdietsi nahi diren helburuak, finantza iturriak eta horiek aplikatzeko mekanismoak.

Funtsean, nabarmentzen dira **belaunaldi berriko konexio sareen azpiegiturek hedapena eraginkorra izan dadin behar diren inbertsio erduei, azpiegitura motei, negozio erduei eta finantzazio tresnei** dagokienez hartu behar diren erabaki estrategiko handiak.

Nafarroako Banda Zabaleko Plan Zuzentzailean definituriko helburuak erdiesteko hautatu behar diren gako estrategiak lau dira.




Horrela, lehenetsuneko inbertsioak definitu dira, kontuan harturik Nafarroako Banda Zabaleko Plan Zuzentzaileko helburu estrategikoak eta maximizatzeko onartutako esku-hartze publikoko neurrien eraginkortasuna. Lehenetsuneko inbertsio horiek jarraian deskribatuko diren jarduketara agertokietan gauzatzen dira.




6.1 1. agertokia: Nafarroako Gobernuaren Gaitasun Handiko Enbor Sarea.


Jarduketa agertoki honetan proposatzen dena da hedatzea eta bilakaera teknologikoa ematea gaur egun jada badiren eta funtzionatzen duten datu garraiorako sareei. Zuntz optikoko eta irrati bidezko sare horiek, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak, gaur egun NASERTICek mantentzen eta baliatzen ditu. Bilakaera horrekin, xedea da gaitasun oso handiko datu garraiorako sare bat izatea, banda zabal laster eta ultralasterraren aukera hedatzeko interes estrategikokoak diren Gobernuko egoitzetara edo operadoreen banda zabaleko sareen hedapen planetatik kanpo gelditzen direnetara.

- **Irismena:** Sare korporatibora konektibitatea duten Nafarroako Gobernuko egoitzen autoprestazioa.
- Gaur egun jada badiren eta funtzionatzen duten Nafarroako Gobernuaren jabetzako zuntz optikoko eta irrati bidezko datu garraiorako sareak hedatzea eta horiei bilakaera teknologikoa ematea.
- **Inbertsio eredua:** Ekimen publikoko sare publikoa.
- **Estimaturiko inbertsioa:** 6,6 milioi €
 - 2 milioi € zuntz optikoko honiduran eta ekipamenduan.
 - 4,6 milioi € instalazioan.




2017an, Nafarroako Gobernuak departamentuetan 1.035 egoitza zituen, Nafarroa guztian banatuta. Horietako guztiei komunikazio soluzio bat ematen zaie, gainerako egoitza eta datu zentroekin komunikazio, email eta Internet konexioa eta telefonia zerbitzuak izan ditzaten.





3. irudia. Nafarroako Gobernuaren egoitzak, motaren arabera. 2017. urtean, guztira: 1.035 egoitza, Nafarroako geografia guztian barrena.



6.2 2. agertokia: Jarduera ekonomikoko guneak.



Egindako diagnostikoaren arabera eta Nafarroako Banda Zabaleko Plan Zuzentzaile honetan ezarritako helburuak betetzeko asmoz, neurri honek Nafarroako Foru Komunitateko eremu zurietan kokaturiko industrialdeei eraginen lieke, SESIADen datu eguneratuen arabera. Agertoki honetan operadoreei diruz laguntzeko eredu baten alde egin da.

- **Irismena:** Eremu zurietan kokatuak dauden industrialdeak.

- Beharrezko komunikazio **azpiegitura diruz laguntzea** (etxolak, dorreak, kanalizazioak, hodiak, kableak eta elkarrekin kokatzeko guneak), horrela, operadoreek nork bere azpiegitura eraikitzeko kostu finkoa (CAPEX) murriztuz.


- **Inbertsio eredu:** Operadoreendako diru-laguntzak.

- **Estimaturiko inbertsioa:** 6,6 milioi €
 - Baliabide publikoen inbertsioa: 5 milioi €
 - Operadoreek eragindako inbertsioa: 7.5 milioi €




duten bezero potentzialen masa kritiko bat sortzea dakar, horrela, operadore pribatuendako errentagarria izan dadin.

- **Irismena:**
 - 852 herri
 - Biztanleriaren %11,57
- **Ibarrak eta ibar taldeak,** 1.000 biztanletik beherako populazioa dutenak eta baterako konexio sare batean elkartu daitezkeenak eta 2.000 biztanletik gorakoak, komunikazio enbor ardatz batetik hurbil daudenak, sortutako trafikoa bideratzeko.
- **Helburuaren erdieste maila:**
 - %100 30 Mbps-ko estaldurarekin
- **Inbertsio ereduak:**
 - Emakidako sare publikoa
 - Lankidetzaren ereduak
- **Estimaturiko inbertsioa:** 18,75 milioi €
 - Inbertsio publikoa: 15,75 milioi €.
 - Operadoreek eragindako inbertsioa: 3,0 milioi €.




Sare publikoko emakida ereduak:



JARDUKETA AGERTOKIAK DEFINITZEKO HELBURUA:

Hartutako esku-hartze publikoko neurrien eraginkortasuna maximizatzea, eskura diren baliabide ekonomikoen arabera inbertsioak lehenetsiz.

AGERTOKIAK	1A	EGOITZAK SARE KORPORATIBORA KONEKTATZEA, AUTOPRESTAZIO ARAUBIDEAN.
	2A	JARDUERA EKONOMIKOKO GUNEA. EREMU ZURIAN DAUDEN INDUSTRIALDEAK ETA ENPRESA PARKEAK ETA ORAINDIK EREMU ZURIAN EZ BADAUDE ERE BARNEAN BANDA ZABAL LASTER EDO ULTRALASTERREKO KONEXIO SARERIK EZ DUTENAK.
	3A	EREMU ZURIAK. 3.000 BIZTANETIK GORAKO HERRIAK, ZEINETAN POSIBLE DEN OPERADORE PRIBATUEN EKIMEN PRIBATUA, >100 Mbps KONEKTIBITATEKO NGA SAREAK HEDATU AHAL IZATEKO.
	4A	EREMU ZURIAK. 1.000 ETA 3.000 BIZTANLE ARTEKO HERRIAK, UDALEN ALDETIK INTERESA AZALTZEN DUTENAK ETA 100 MBPS-TIK GORAKO KONEKTIBITATEKO NGA SAREAK HEDATZEKO NAHITAEZ EKIMEN PUBLIKO MOTAREN BAT BEHAR DUTENAK.
	5A	EREMU ZURIAK. 1.000 BIZTANLETIK BEHERAKO HERRIAK, ETEN DIGITALEKO EGOERAN DAUDENAK, BERTAN OPERADOREAK EZ BAITAUDE INTERESATURIK > 30 Mbps KONEXIODUN NGA SAREAK HEDATZEKO, EZ BADA ESTATUAK LAGUNTZA MAILA HANDIA EMATEN DUELA.





Ez dago egoera bakoitzari egokituriko inbertsio eredu bakar bat. Hortik abiatuta, kontuan izan behar da eredu bakoitzak bere abantailak eta desabantailak dituela eta kasu bakoitzeko gune geografikoaren eta ingurunearen gorabehera eta baldintzen arabera eredu bat edo beste izanen dela egokiago.

Testuinguru honetan, ekintza planean proposaturiko ereduak diseinatu ditugun inbertsio ereduetan aipaturikoa hartzen dute kontuan oinarri eta erreferentzia gisa.








	HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKOEN ARTEKONEURTASUN MAILA	ARRISKU FINANTZARIOAREN TRANSFERENTZIA MERTATUKO ERAGILEEI	ADMINISTRAZIO PUBLIKOARENDAKO INBERTSIOAREN ITZULKINA (SARRERAK SORTZEA)	PROIEKTUAREN GAINEKO KONTROLA	GIZARTEARENDAKO AZPIEGITURA IZATEA	AGERTOKIAK
Kudeaketa publikoko sare publikoa	HANDIA	BAXUA	POTENTZIALKI ZERBAIT	HANDIA	HANDIA	1A
Kudeaketa pribatuko sare publikoa	ERTAINA	BAXUA	ERTAINA	ERTAINA	ERTAINA	5A 4A
Banda zabal komunitarioa	ERTAINA	BAXUA	ERTAINA	BAXUA	ERTAINA	5A
Sare pribatua, operadorea diruz lagunduta	BAXUA	HANDIA	BAXUA	BAXUA	BAXUA	2A 4A


Azken hiru agertokietan hartutako erabaki estrategikoetan zertxobait sakonduz, azpimarratzekoa da agertoki horiek modulatu egiten dutela administrazio publikoaren esku-hartze maila. Identifikatu dira biztanleriaren banaketa aztertzeaz gain, Nafarroako banda zabalaren gaurko egoera belaunaldi berriko sareen hedapenerako planifikaturiko azpiegiturak aztertu ondoren.











7






JARDUKETEN LABURPEN KOADROA


ARDATZ ESTRATEGIKOA	ID_P	PROGRAMA	ID_J	JARDUKETA LERROA	BERARIAZKO HELBURUAREN GAINEKO ERAGINA
 Lurraldea egituratzea	1	NGA sareak hedatzean konexio oztopoak murriztea	1	Nafarroako Gobernuaren sarearen gaitasun soberakina balorizatzea	1-2-3
 Lurraldea egituratzea	1	NGA sareak hedatzean konexio oztopoak murriztea	2	Handizkako sarbideko interkonexio puntuak hedatzea	1-2-3
 Lurraldea egituratzea	1	NGA sareak hedatzean konexio oztopoak murriztea	3	Tokiko Azpiegitura planean Telekomunikazio Azpiegiturak bultzatzeko Zuzendaritza Plan bat sartzea	1-2-3
 Lurraldea egituratzea	2	Azpiegituren kudeaketa eraginkorra	4	Udal azpiegituren inbentarioa hobetzea	1 a 14
 Lurraldea egituratzea	2	Azpiegituren kudeaketa eraginkorra	5	Jarduketen koordinazioa, inbertsioak optimizatzeko	1-2-3
 Herritarrak	3	Banda zabaleko estaldura landa eremura hedatzea	6	3. agertokia: NGA konexio sareak hedatzea 3.000 biztanletik gorako herrietan	4
 Herritarrak	3	Banda zabaleko estaldura landa eremura hedatzea	7	4. agertokia: NGA konexio sareak hedatzea 1.000-3.000 biztanle arteko herrietan	4



ARDATZ ESTRATEGIKOA	ID_P	PROGRAMA	ID_J	JARDUKETA LERROA	BERARIAZKO HELBURUAREN GAINEKO ERAGINA
 Herritarrak	3	Banda zabaleko estaldura landa eremura hedatzea	8	5. agertokia: NGA konexio sareak hedatzea 1.000 biztanletik beherako herrietan	5-6
 Herritarrak	4	Toki-erakundeekin jarduketak koordinatzea	9	Erakunde publikoen artean lankidetzak hitzartzenak kudeatzea	4-5-6
 Herritarrak	4	Toki-erakundeekin jarduketak koordinatzea	10	NGA sareak hedatzen laguntzeko udal araudia prestatzea	4-5-6
 Herritarrak	4	Toki-erakundeekin jarduketak koordinatzea	11	Neurriak hartzea, azpiegituren ikuspegi batera bat izateko	4-5-6
 Gobernuaren egoitzak	5	Nafarroako Gobernuaren telekomunikazio azpiegiturak hobetzea	12	Nafarroako Gobernuaren zuntz optikoko enbor sarea hedatzea	7-8-9-10-11
 Gobernuaren egoitzak	5	Nafarroako Gobernuaren telekomunikazio azpiegiturak hobetzea	13	Irrati bidez datuak garraiatzeko gaur egungo sarearen bilakaera	8-9-10-11
 Gobernuaren egoitzak	6	Nafarroako Gobernuaren egoitzen konektibitate zerbitzuak hobetzea	14	Autoprestazio zerbitzuen araubidean dauden egoitzen konektibitatea hobetzea	8-9-10-11



ARDATZ ESTRATEGIKOA	ID_P	PROGRAMA	ID_J	JARDUKETA LERROA	BERARIAZKO HELBURUAREN GAINEKO ERAGINA
 Gobernuaren egoitzak	6	Nafarroako Gobernu-ko egoitzen konektibitate zerbitzuak hobetzea	15	Operadoreei kontrataturiko zerbitzuko araubidean dauden egoitzen konektibitatea hobetzea	8-9-10-11
 Enpresa sarea	7	Jarduera ekonomikoko guneetan banda zabaleko konektibitatea hobetzea	16	Jarduera ekonomikoko guneetan banda zabaleko konexio sareak hedatzea	13-14
 Enpresa sarea	7	Jarduera ekonomikoko guneetan banda zabaleko konektibitatea hobetzea	17	Handizkako konexio puntuak sortzea	12-13-14
 Enpresa sarea	8	Jarduera ekonomikoko guneetan oinarrizko telekomunikazio azpiegiturak planifikatzeko tresnak hobetzea	18	Industrialdeetan eta bestelako jardueran ekonomikoko guneetan oinarrizko telekomunikazio azpiegituren araudia garatzea	12-13-14
 Enpresa sarea	8	Jarduera ekonomikoko guneetan oinarrizko telekomunikazio azpiegiturak planifikatzeko tresnak hobetzea	19	Industrialdeetan eta jardueran ekonomikoko guneetan eskura diren telekomunikazio zerbitzu eta azpiegiturei dagokien dokumentazioa eguneratua mantentzea eta hobetzea	12-13-14




8

INBERTSIOEN LABURPEN KOADROA

Inbertsio lehentasunak	Egin beharreko inbertsioak, urteka					Egin beharreko inbertsioak, guztira		
	2017	2018	2019	2020	2021	Inbertsioa, guztira	Inbertsioa guztira, sektore publikoan	Inbertsioa guztira, sektore pribatuan
1A Nafarroako Gobernuaren gaitasun handiko enbor sarea hedatzea						6.600.000,00€		
Inbertsioa sektore publikoan	2.200.000,00€	2.200.000,00€	2.200.000,00€				6.600.000,00€	
Inbertsioa sektore pribatuan								
2A NGA konexio sareak hedatzea industrialdeetan						12.500.000,00€		
Inbertsioa sektore publikoan	1.250.000,00€	1.250.000,00€	1.250.000,00€	1.250.000,00€			5.000.000,00€	
Inbertsioa sektore pribatuan	1.875.000,00€	1.875.000,00€	1.875.000,00€	1.875.000,00€				7.500.000,00€
3A NGA konexio sareak hedatzea 3.000 biztanletik gorako herrietan						6.500.000,00€		
Inbertsioa sektore publikoan								
Inbertsioa sektore pribatuan	2.500.000,00€	1.000.000,00€	1.000.000,00€	1.000.000,00€	1.000.000,00€			6.500.000,00€
4A NGA konexio sareak hedatzea 1.000 eta 3.000 biztanle arteko herrietan						9.900.000,00€		
Inbertsioa sektore publikoan	1.000.000,00€	1.000.000,00€	1.000.000,00€	1.000.000,00€			4.000.000,00€	
Inbertsioa sektore pribatuan	1.475.000,00€	1.475.000,00€	1.475.000,00€	1.475.000,00€				5.900.000,00€
5A NGA konexio sareak hedatzea 1.000 biztanletik beherako herrietan						18.750.000,00€		
Inbertsioa sektore publikoan	1.750.000,00€	3.500.000,00€	3.500.000,00€	3.500.000,00€	3.500.000,00€		15.750.000,00€	
Inbertsioa sektore pribatuan		750.000,00€	750.000,00€	750.000,00€	750.000,00€			3.000.000,00€
	Egin beharreko inbertsioak, guztira					54.250.000,00€	31.350.000,00€	22.900.000,00€

Nafarroako Banda Zabaleko Plan zuzentzailea gauzatzeko inbertsio publikoa **31,35 milioi eurokoa izanen da**. Induzituriko inbertsio pribatuarekin bat, guztira **54,25 milioi euro mobilizatuko dira kapital publiko eta pribatuaren artean** plan hau garatzeko. Proposatutako inbertsio publikorako estimaturiko zenbatekoak, adierazitako aldi guztirako, Nafarroako Foru Komunitatearen aurrekontu osoaren %0,16 suposatzen du.

* BEZa barne izan gabe



9 | NOLA EGIN DUGU PLAN HAU?

Plan zuzentzaile hau 6 hilabeteko lanaren emaitza da eta bertan hainbat alorretako 200dik gora profesionalak hartu dute parte, **Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak** gidatuta eta **NASERTIC-ekin lankidetzan**.

Ia 6 hilabeteko lanean eta talde egitura batean oinarrituta zabalduz joan den ikuspegi estrategikoko ariketa bat egin da. Hasierako galdera beti izan da arrunt argia eta ez du zalantzarik sortu: **Zer egin dezakegu, Administrazioa garen aldetik, eta nola egin behar dugu?**

Galdera honi erantzun diote Banda Zabaleko Plan Zuzentzaileko Departamentuarterko Batzordeko kideek. Bertan, Nafarroako Gobernuak ia Departamentu guztiak hartu dute parte. Plan Zuzentzaile honen sorreran lehen unetik beretik parte hartzea eskertzen diegu. Departamentuarterko Batzordearen funtsezko lana izan da koordinatzea gainerako taldeen jarduera: **Talde juridiko-administratiboa** (araudi esparrua, erlazio ereduak eta kontratazio ereduak aztertu ditu), **Talde teknikoa**, **Talde instituzionala**, **Talde ekonomiko-finantzarioa** eta **Merkatuko eragileen taldea**. Talde hauek nork bere jarduketa esparruan ezagutza handikoak eta eskarmentu zabalekoak diren profesional eta adituek osatu dituzte. **Horiek guztiak gabe, Plan Zuzentzaile hau ezin izanen zitekeen argitara eman.**

**BANDA ZABALEKO PLANAREN ANTOLAMENDU
EGITURA: JARDUKETA EREMUAK ETA TALDEAK**

 Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

33

BANDA ZABALEKO PLANAREN DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEA

+ Banda Zabaleko Planaren helburu eta jarrailbide estrategikoak ezartzea (RIS3 barnean)

JURIDIKO - ADMINISTRATIBOA

Araudi esparrua

Erlazio ereduak


Kontratazio ereduak

TEKNIKOA

INSTITUZIONALA

EKONOMIKO-
FINANTZARIOA

MERKATUKO
ERAGILEAK



Talde guztien arteko komunikazioa arina eta iraunkorra izan da, atzeraelikadura handiarekin eta taldeen arteko etengabeko kontsultak eginez, konponbideetan aurrera egiteko eta unean uneko eskariei erantzuteko. Lantalde guztiek izan dute, informazio bera helburuak, jarraibideak, ardatzak, lan ildoak etab. eratzeko.


Lankidetzaz, koordinazioa eta gardentasuna izan dira Banda Zabaleko Plan Zuzentzaile honen gidalerroak. Denak izanen gara azpiegitura hauen onuradun (bere garaian elektrizitatearekin edo errepideekin gertatu zen gisan). Hala bada, zentzuzkoa da plan hau egiteko tenorean, Nafarroako Gobernuak aintzat hartzea zer esana duten eragile guztiak. Horrela, plana prestatzeko lanetan lankidetzaz aritu dira Nafarroako Gobernuko beste zuzendaritza nagusi batzuk, udalak, mankomunitateak, lurralde elkarteak, tokiko ekintza taldeak, enpresaburuen erakundeak, telekomunikazio operadoreak, Komunikaziorako eta Informazioaren Gizarterako Estatu Idazkaritza, Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionala, etab.

Prozesu honetan guztian beti izan dugu iradokizunak, kritika eraikitzaileak, iritzi trukeak, eztabaidak etab. jasotzeko irekitasuna, betiere aurrez ezarritako printzipio eta ardatzak errespetatuz. Hau ez da akabera, Nafarroako Gobernuaren Parte-hartze Atariak adierazten duen gisan, “xede kolektiboak bilatzeko beretik zerbait eskaintzeko prest dauden pertsonez elikatzen” jarraitu nahi dugu. Eta horrela izanen da hondarrera arte.

Parte-hartzeko eta jendaurrean paratzeko epean zehar, Banda Zabaleko Planeko taldeak prozesu hau **udalei eta tokiko ekintza taldeei** irekitzeko erabakia hartu zuen, aurrez Nafarroako Gobernuko Departamentu guztiak, enpresa publikoak eta operadoreak entzun ondoren. Ekarpen horiek Plan zuzentzailearen lehen zirriborroan jada sartuak zeuden.

Denbora honetan guztian, Banda Zabaleko Planak ikusi du **adostasun orokorra** zegoela ildo estrategikoetan, helburuetan eta planak egituraturiko agertokietan. Oro har, anbizio handikotzat jotzen badira ere, balioetsiak izan dira, Nafarroako Gobernuak beste administrazio batzuekin lankidetzaz erdiesten saiatu beharreko erronka den aldetik. Halaber, parte-hartze prozesu honek ahalbidetu du Nafarroan banda zabalak duen benetako egoeraren gaineko **dibulgazio eta sentsibilizazio lana egitea**; lurralde saioek aukera eman dute bestela hitzetara ekartzen zaila izanen zen ezagutza tekniko bat hedatzeko. Nabarmen ikusi da toki administrazioen arteko **lankidetzaz eta koordinazioa** behar direla -bilguneen bidez-, konponbide bateratu bat erdiesteko eta banda zabalen onurak herritarren esku uzteko. Halaber, prozesu honetan parte hartu duten guztiek azpimarratu dute nahitaezkoa dela Nafarroako Gobernuaren lidergoa, hura baita ekintza global eta zehatzen bultzatzaile eta erraztaile, zehazturiko helburuak erdiesteko bidean.

Bestetik, eta hala ondorioztatzen da aktak irakurrita, parte-hartze prozesuak bitariko norabidea izan du, Plan Zuzentzailearen printzipioak, erronkak, helburuak, etab. transmititzeko orduan. Gauza bera esan daiteke hainbat herri banda zabaleko konexioan duten egoeraren gaineko informazio teknikoa jasotzeari dagokionez, orain arte abiapuntuko egoera ezagutzen bazen ere, ez baita horiekin harremanik izan. Ildo honetan, lan handia gelditzen da egiteko, urrats bakoitzean konponbideak eskaintzeko orduan eta zehazturiko helburuak erdiesteko orduan.




Hala, Banda Zabaleko Planaren parte-hartzeak 2017ko maiatzaren 30era arte utzitakoa laburbiltzen dugu.



Nafarroako Banda Zabaleko Plan Zuzentzaile hau, etorkizun hobe bat amets, denon artean egin dugun lan baten hasiera baino ez da. Zer iritzi, pentsatzeaz gain, egiteko ere mugitzen bagara?

Argibide gehiago:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/plan-director-banda-ancha-navarra-2021>



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**

Informatika, Telekomunikazio eta Berrikuntza Publikoaren
Zuzendaritza Nagusia

Dirección General de Informática, Telecomunicaciones e
Innovación Pública